

# B

BARREN

TOKIKOM



## Deba ibaia: ikusten dena baino gehiago

Antton Alberdi biologoa eta Inma Mugertza geologoa

ELGOIBAR  
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak  
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak  
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera  
+ BEZ

Bukatutako eraikina  
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67



GABILONDO

AGENCIA INMOBILIARIA

C/ San Francisco 51, bajo,  
Elgoibar



Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

www.sukia.com



Ainara Sedano

Badatoz hauteskudeak, eta horrekin batera, propaganda, teleaio eta etengabeko zarata. Zarata deritzaio hain zuzen ere komunikazioa ezinezko egiten duenari, baina hauteskundeetan, informazio gutxiegi eta zarata gehiegi egon ohi da. Hala ere, uste dut benetan merezi duela tarte bat hartu eta dauden aukerei buruz, gutxi bada ere, zerbait irakurri eta aztertzea. Auto bat erosi behar badugu, hainbat azterketa egiten ditugu eta autoen mundua goitik-behera ezagutzeko prest egoten gara; berdin-berdin erosi behar duguna gure haurarentzako aukia bada. Baina ez dakit zergatik, hauteskundeak iristen direnean, batzuek berehala egiten dute paso eta beste batzuek ohituraz ematen dute botua edo lehenengo inpresio batek bultzatuta.

**“Oso erraz hitz egiten dugu politikaz, gugan zein eragin duen jakin gabe”**

Gustatu edo ez, hauteskundeetan gertatzen denak gugan berebiziko eragina izango du, beraz beste zenbait gauzentzat hartzen dugun denboraren heren bat hartzea proposatu nahiko nuke. Alderdiak sartu dira egungo komunikabide berrietan, sarean daude, eta informazioa eskuragarri daukate, beraz aitzakiarik ez dago. Aukera ona da politika benetan zer den jakiteko. Egun, oso erraz hitz egiten dugu politikaz, benetan zer den eta gugan zein eragin duen jakin gabe. Aprobetxatu bada aste hauek zerbait gehiago ikusi eta ikasteko. Nik ere asmoa beteko dut, betidanik gustatu izan zait alderdi desberdinek zer dioten entzutea, nire ideiak argi izan arren. Merezi duelakoan nago, benetan.



Noemi Otegi

Kaixo, Noe. Ba nik ez daukat hain argi. Nire ustez aztertu beharrekoa litzateke alderdi bakoitzak eskaintzen duena aukeraketa egin ahal izateko. Eta “baldintza” erabiltzen dut, azken finean alderdi bakoitzak nork bereak eskaintzen dituen arren, iruditzen zaidalako saltsa potoloetan denak barne izaten direla. Orain hain bogan dagoen bankuen gaian, adibidez, dena politikak kontrolatu duela iruditzen zait, eta uste dut hartu diren erabakiak politikariek hartu dituztela; administrari kontseilu guztiak politikariz beteta daudelako, enpresa garrantzitsuetan politikariak daudelako zuzendaritzetan, erakunde publiko guztiak politikariek zuzentzen dituztelako... Aldiz, kaka piloa argitara ateratzen denean, soka ez da politikari bakar baten lepora lotzen. Nik neuk aukeraketa egin beharko banu, profesional egokiak aukeratuko nituzke, eta ez lau urtean behin aldatuko diren alde honetako edo besteko lagunak (batzuk oso onak izango diren arren).

**“Politikan, beste mila gaitan bezala, baloreak galdu direla iruditzen zait”**

Politikan, mila gaitan bezala, baloreak galdu direla iruditzen zait, eta “boterea non neure burua han” jokaeraren arabera funtzionatzen dutela, norekin batzen garen axola gabe. Iruditzen zait boterea eskuratzeko orduan azkar ahazten zaigula gurekin elkartu beharrekoak ezkerrekoa, eskubikoa, langilearen aldekoa, kontrakoa, aberatsa edo pobrea izan behar duen. Eta errespetatu beharreko printzipio horiek irakurri nahiko nituzke nik alderdien propagandetan; baina egitazkoak, ez marketinezkoak.

**Ferpi**

Alta Agirre Plaza

Bartolome Duenaren kalea

**ETXE BERRIA SALGAI San Bartolome 30ean. Etxe barruko distribuzioa aldatzeko aukera! San Bartolome eta Alta Agirre plazara bistak! Galdetu ezazu FERPI MODAS dendan edota 943 740 815 telefonoan**

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



AIRE ARDIF



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Konpromisoa

Aurrera egiteko, EAJ-PNV alderdiaren herriarekiko konpromisoak ekonomia sustraitua, bakea, bizikidetzeta eta burujabetasuna dira. Erabakitze eskubidea, gure aukeren jabe eraikiz, gizartearen garapen iraunkorrek justizia soziala bermatu dezan.

Gure programa idatziz aurkeztu zaie hiritarrei, 175 konpromiso ezarri ditugu; horiez gain, konpromiso horiek guztiak betetzeko 610 ekimen ere planteatzen ditugu ([www.urkullu.es](http://www.urkullu.es)).

Egunerokotasunaren eta plangintzaren garrantzia nabarmentzen dira Joxe Azurmen-di idazlearen esanetan: "Ideiek euria bezala (etengabe eta neurrian) etorri behar dute, ez trumoaia eta ekaitza bezala, eta denborak bere lana egingo du sorotan".

Norberaren konpromisoa eta inplikazioa eskertzeko, Andoni Egañaren bertso batek dioena: "Berez ez da sekula garatzen mundua, eskertzekoa da zuk hortan lagundua. Jarrri dituzulako bihotza, burua... ezagutuz hobetzen gure ingurua".

**Elgoibarko EAJ-PNV alderdiko zinegotziak** ☛

### Aupa gazte!

Elgoibarko bost gazte gara, eta proposamen batekin gatzokiz gaurkoan. Orain gutxi Hego Euskal Herrian independentzia eta sozialismoaren aldeko gazte antolakunde berria abiatzeko prozesua jarri zuten martxan. Prozesuak Zukgua du izena, ZUK osatzen duzulako GUA eta norbanakoak kolektiboak. Zukgua ahalik eta anitzena eta koloretsuena izatea nahi dugu, eta mazedonia da gure eredu, tamaina, tankera eta kolore askotariko fruten nahasketa delako. Zukguaren oinarria herri bakoitzeko gazteen arteko iritzi-trukaketa eta hausnarketa izango da.

Helburu horrekin, Elgoibarren ere zenbait topaketa antolatuko ditugu prozesua denon artean egiteko eta gazte antolakunde berria nahi dugun, behar dugun eta zelakoa nahi dugun erabakitzeke. Zure eta Elgoibarko gazte guztien ekarpenak ezinbestekoak direlako, berdin marrubi, mango edo mahats bazara.

Ziur esateko asko duzula, beraz badakizu: nahi baduzu ongi etorria izango zara gure ma-

zedoniara. Lehenengo solasaldia datorren igandean egingo dugu, hilaren 21ean; 16:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Zatoz!

**Itsaso Alguacil, Maialen Arnedo, Ander Izagirre, Mikel Olaizola eta Danele Sarriugarte** ☛

### Udalaren mugikortasun iraunkorra dela eta

Biharrera bizikletaz joaten naizen egunetan bizitza bera jartzen dut jokoan. Ez dago bizikleten kultururarik, eta are gutxiago, baliabiderik. Elgoibarren, kontrakoa dioten arren, oraindik ez dago bidegorri kilometro bakar bat ere.

Udaletik mugikortasun jasangarria bultzatu nahi dutela diote, eta bat egin dut propaganda honekin, ez baitago egitasmo bat, propaganda hutsa baizik. Halere, egiten dudanean sinesten dut, eta zabaltzeko edozein aukera aprobetxatu.

Borondaterik balego, segurtasuna bermatuko litzaiguke. Ez esan dirurik ez dagoenik, bizikleta elektrikoak erosten edota kiroledegi edo HAP-POaren txostenak egiten xahututako dirutzaren zatitxo batekin adibidez, gure segurtasuna soberan bermatu daiteke eta.

Istripu bat gertatzeko zain al zaudete?

**Arkaitz Irureta Arrieta** ☛

## OHARRA

Gertu inprimategiak jai egingo du urriaren 25ean. Hori dela eta, datorren asteko alea egun bat lehenago bidali beharko dugu inprentara. Beraz, urriaren 26ko alean zerbait argitaratu nahi izanez gero (zorion agurrak eta merkatu txikiko iragarkiak barne), **martitzen eguerdirako** bidali beharko diguzue informazioa. Eskerrik asko.

Bestalde, domekan Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak egingo dira, eta gauean [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian izango dituzue Elgoibarko emaitzak.

# estetika gehigarria

Ederrago egoteko kezka betidanik izan du gizakiak. Eta kezka hori are handiagoa da gaur egun. Irudiaren gizartean bizi gara, eta guk buruan darabilgun itxura fisiko hori lortzeak seguruago sentiarazten gaitu sarri askotan.



 **AZALEA** *Edergintza*  
*M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua*  
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektriko eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

 **Garbiñe**  
Estetika

Uda ondoren zure gorputz eta aurpegiko azala berritzen eta berriro hidratatzen laguntzen dizugu.

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

**ELENA**

**ileapaindegia**

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

## Ederrago egoteko aholkuak

**G**aur egun ederrago egoteko aholkuak ematen dituzten dozenaka orrialde eta blog aurkituko ditugu Interneten, baina aholku guzti horiek modak ezarritakoak izaten dira, eta sarri askotan mesede baino kalte handiagoa egiten dute. Horregatik, ahokularitza pertsonalatuaren bidez, prestaketa, arreta eta ezagutzia guztia bezeroaren beharretara egokitzen dugu, era horretan haren dohainak indartzeko. Makilajearen ka-



suan, esate baterako, bezeroaren azalaren eta aurpegiko harmoniaren azterketa bat eginda, truku txiki batzukin inperfekzioak hobeto disimulatu eta gure alderik politenak nabarmentzeko aukera daukagu. Era berean, azalaren, ilearen eta begien koloreari erreparatuta, pertsona horri ondoen emango dion koloreak zeintzuk diren jakin ahal izango dugu, eta krema pertsonalizatuekin eta oinarritzko kremekin azal bizi edo disdiratsuagoa lortuko dugu.

**HAIR'S**  
ILEAPAINDEGIA  
San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 531 279

Astearteetan jubilatuen eguna:  
Orraztu 8 €  
Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

A stylized graphic illustration of a woman's face and hair, rendered in shades of pink and black.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

**Idama**

- IRUDI AHOLKULARITZA **Berria!!**
- MAKILAJEAK
- MANIKURA ETA PEDIKURA
- GEL-DUN AZKAZALAK
- DEPILAZIOAK
- MASAJEAK
- AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK

A close-up photograph of a person's hands being treated, likely a manicure or pedicure, with a white cream or gel applied to the fingers.

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 744 026

# Gizonezkoen tratamendu estetikoak bogan

**O**rain dela gutxira arte estetikarekiko kezka emakumeen kontua zela uste zuten askok; eder egoteko nahia emakumeek bakarrik balute moduan. Azken urteetan, baina, gizonezkoen tratamendu estetikoaren gaineko eskariak nabarmen egin du gora, eta estetika maskulinoaren merkatuak indar handia hartu du. Gaur egun, estetika zentroetako hamar bezerotik lau gizonezkoak dira.

Zahartzearen kontrako tratamenduek dute eskaera handiena: aurpegiko zimurrak nola tratatu, aurpegiko mantxak nola kendu... Gorputzeko tratamenduei dagokienez, gehien egiten diren galderak sabelaldeko grasak kentzeko tratamenduen ingurukoak izaten dira.



Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

**AGURTZANE**  
c.b.

*ileapaindegia*

## FOTODEPILAZIOA 2012

<b>PATILLAK</b> <span style="font-size: 24px; color: red;">19,90</span> €/saioa	<b>BESAPEAK</b> <span style="font-size: 24px; color: red;">29,00</span> €/saioa	<b>IZTAIAK</b> <span style="font-size: 24px; color: red;">29,90</span> €/saioa
---	---	--

### Urria, Azaroa, Abendua

<b>ZANGO ERDIAK</b> <span style="font-size: 24px; color: white;">69,00</span> €/saioa <small>Belaunetik gora edo belaunetik behera</small>	<b>IZTAIA + INTERGLUTEO+ PUBISA</b> <span style="font-size: 24px; color: white;">69,00</span> €/saioa	<b>GIZONEZKOEN TORAX-A</b> <span style="font-size: 24px; color: white;">89,00</span> €/saioa <small>Bularra + sabelaldea</small>
---	---	---

## Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Ilea zaintzeko *Kerastase* eta *L'oreal* tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30  
Elgoibar  
Tele.: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak

[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)

## 2009an Madariagako leize batean hilda topatu zuten gizonaren hilketa argitzeko epaiketa hasi dute Donostian

Fiskaltzak 20 eta 29 urte arteko zigorrak eskatzen ditu akusatuentzat

2009an Madariagako leize batean hilda topatu zuten gizonaren hilketa argitzeko epaiketa hasi zuten astelehenean Gipuzkoako Auzitegian. Hiru gizon daude akusatuen aulkian, tartean bi elgoibartar. Ignacio Pascual 64 urteko erandioarra hil izana leporatuta atxilotu zituzten hirurak 2009ko abenduan. Bartzelonako espeleologo talde batek kasualitatez aurkitu zuen Ignacio Pascualen hilotza, 2009ko abuztuan. Ordurako, usteltzen hasita zegoen gorpua, baina hilotzaren ondoan diru zorro bat topatu zuen Poliziak, eta han zeuden agiriei esker identifikatu zuten. Ignacio Pascualek aurrekariak zituen droga trafikoagatik, eta hari horri tiraka hasi zuen ikerketa Ertzaintzak. Ustez, Pedro Muguruza etorbideko industria nabe batean hil zuten gizona, eta furgoneta batean eraman zuten Madariagaraino.

Orain, 20 eta 29 urte arteko kartzela zigorrak eskatu ditu Fiskaltzak hiru akusatuentzat, eta baita 80.000 euroko kalte-ordaina biktimaren senideei ordaintzeko. Hilketa eta lapurreta delituak leporatzen dizkie fiskalak. Auzipetutako elgoibartarretako batek deklaratu du ez zuela biktima eza gutzen eta ez zuela berak hil, baina aitortu du gorpua ezkutatzaren parte hartu zuela, taller barruan droga zutelako, eta ez zelako ausartu ertzainei deitzen.

### Arnaldo Otegi askatzeko exijitu dute, kartzelatu zutenetik hiru urtera

Zapatuan hiru urte bete ziren *Bateragune auziaren* barruan Arnaldo Otegi ezker abertzaleko bozeramailea espetxeratu zutenetik, eta hori salatu eta Otegi eta haren etxekoei elkartasuna agertzeko elkarretaratze isila egin zuten Elgoibarren, Arnaldo Otegiaren aldeko herri ekimenak deituta. *Arnaldo askatu* lelopean orduerdi inguru egin zuten elkarretaratuta dozenaka lagunek.



### Bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzeko ohitura sustatzeko astea izan da



Bigarren urtez, Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu du Elgoibarko Udalak, bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzeko ohitura sustatu aldera. Horren barruan ekintza ugari antolatu dituzte. Argazkiko lagun hauek, esaterako, Ideko, Danobat eta Goiti lantegietako langileak dira, eta astebetez elkarrekin egin dute lantegira arteko bidea, bizikletaz. Era berean, Emugi egitasmoko ibilgailu elektrikoak orduerdiz probatzeko aukera izan dute 18 urtez gorako elgoibartarrek eta kotxe elektrikoak probatzekoa enpresek (bihar bukatuko da. Ordutegia: 10:00-14:00). Interesatuek 943 747 371 / 688 684 633 telefonoetara deituta eman dezakete izena. Astelehenean, berriz, Oin Alai ekimenaren barruan, *Ariketa fisikoaren onurak* umeentzat izeneko hitzaldia izango da Kultur Etxean, 18:30ean.



## Hauteskunde kanpaina



Kerman Orbegozo legebiltzarkideak eta Markel Olano Gipuzkoako EAJren Batzarkide taldearen bozeramaileak hitzaldia eskaini zuten joan zen zapatuan Batzokian, hauteskunde kanpainaren barruan. Krisia, euskara eta gaurkotasuneko beste hainbat gai izan zituzten hizpide.



EH Bilduk familia argazkia atera zuen zapatu eguerdian Kalegoen plazan. Arratsaldean ekitaldi nazionala egin zuen BECen koalizioak, eta Elgoibartik ere irten zen autobus bat hara. BECeko ekitaldian, Arnaldo Otegiren grabazio bat eman zuten, hain justu ere, espetxeratu zuteneko hirugarren urtea betetzen zen egunean, eta Logroñoko kartzelako zuzendaritzak zigorra ezarri dio hargatik. Inkomunikatu egin dute.



Hauteskunde kanpainaren barruan, joan zen egunean larrosak banatu zituzten alderdi sozialistakoek Elgoibarren. Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburua eta Fernando Suarez PSE-EEko zinegotzia ibili ziren larrosak eta PSOEn programaren esku orriak banatzen. Merkadilloan ateratakoa da argazkia.

## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira domekan

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak dira domekan, eta botoa ematera deituta daude 18 urtez gorakoak. 9:00etan zabalduko dituzte hauteslekuak, eta 20:00etan itxi. Mendaron udaletxean jarriko dituzte hautesmahaiak, eta Elgoibarren Kultur Etxean, Jubilatuen Egoitzan, Pedro Muguruza-ko eskoletan, San Roken, Urazandin, Altzolan eta IMHn.

## Jesus Bilbaori eman diote Gure Balioak saria

Jesus Bilbao enpresa gizon elgoibartarra saritu du Debegesak. Gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatearen lana aitortu eta saritzen dute Gure Balioak sarietan. Bilbao 16 urterekin hasi zen lanean, Danobaten, eta 26 urterekin gerente zen jada. 60ko hamarkada amaieran eta 70eko hasieran, Euskadiko Kutxako Batzorde Errektoreko kide izan zen. 1974an, Danobat laga eta erreminta makinaren alorreko enpresari batzuekin batera, Maherholding eratu zuen, eta zuzendaritza orokorreko kide izan zen, 2005ean erretiroa hartu zuen arte. Garai horretan, Goratu enpresako Zuzendari Nagusi izan zen zortzi urtez. Gainera, Maherholding, Inverma, AFM, Acome, Tekniker, Fatronik, Ekor, Adeg, Adegilan eta IMHko kontseilu edota zuzendaritzatan parte hartu zuen. Era berean, Elgoibar Ikastolako presidente ere izan zen, eta gaur egun Fasys eta Anateusk proiektuetan dabil lanean.



## Mikel Hernandez soraluzetarrak irabazi du San Pedroko txirrindulari Igoera

**P**ilarika Egunean jokatu zuten urtero legez San Pedroko Igoera, eta aurten, Mikel Hernandezsoraluzetarrak irabazi zuen proba, 14:09 denborarekin. Hernandezek ez zuen areririk izan San Pedroko maldetan gora, eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara. Gainera, aurreko bi urteetan Iñigo Lazkanok eginiko markak ondu zituen, baina, hala ere, ezin izan dio Iñigo Larizi errekorra (13:21) kendu. Emakumezkoetan bi lagunek hartu zuten parte, eta horien artean, Ainhoa Lendinez izan zen bizkorrena, 19:04 denborarekin. Guztira 41 lagunek hartu zuten parte, iaz baino hogei gutxiagok, hain zuzen ere. Argazki gehiago, [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean.



### Sailkapena

1. Mikel Hernandez (14:09)
2. Azibar Iraolagoitia (14:55)
3. Iñigo Ortuoste (15:08)
4. Iban Gonzalez (15:28)
5. Jorge Gonzalez (15:57)
6. Javi Gorbea (16:01)
7. Jose Felix Iglesias (16:08)
8. Iñaki Gorosabel (16:15)
9. Juan Carlos Seguin (16:20)
10. Toni Cid (16:20)
11. Ramon Garcia (16:38)
12. Ignacio Diaz (16:44)
13. Iker Goikoetxea (16:51)
14. Andoni Ortega (17:03)
15. Jose Mari Fernandez (17:11)
16. Dani Palacin (17:11)
17. Pablo Zabala (17:18)
18. Victor Cordon (17:26)
19. Xabier Zaizar (17:28)
20. Aitor Hernandez (17:33)
21. Andoni Lopez (17:15)
22. Nestor Cordon (17:35)
23. Ibai Konde (17:35)
24. Jose Antonio Agote (17:41)
25. Julen Deblas (18:10)
26. Gotzon Arrieta (18:14)
27. David De Prado (18:27)
28. Iban Gurrutxaga (18:45)
29. Andoni Etxeberria (19:01)
30. Ainhoa Lendinez (19:04)
31. Jon Etxeberria (19:25)
32. Iban Ondarza (19:35)
33. Jose Luis Diez (19:46)
34. Antonio Lendinez (19:55)
35. Ricardo Huidobro (20:19)
36. Axier Basurto (21:05)
37. Iker Palomino (21:15)
38. Ainhoa Larrañaga (21:26)
39. Jesus Larrañaga (21:26)
40. Iban Mato (22:49)
41. Ricardo Zabala (24:37)



**Txankakoako zubiko baranda amaraunez beteta dago:** "Txankakoatik Santa Klara auzora joateko bidean dagoen baranda amaraunez beteta dago. Jen-

de asko ibiltzen da ingurune horretan, eta jende nagusiak ezin izaten du baranda heldu ere egin, eskua jartzeko lekurik ez dagoelako. Elgoibarren leku asko daude amaraunez eta armiarnez beteta, eta eskertuko genuke heldulekuak behintzat garbitzea. Mila esker".



**Txankakoa zubiko espaloia oso desegokia da oinetako finekin ibiltzeko:** "Oinetako finekin ibiltzen garenontzako ez da batere eroso Txankakoa zubiko espaloiko lurra. Askotan bidera irten behar izaten dugu, harri koskor horiek min ematen dutelako. Bidean autoak ibiltzen dira, eta arrisku-tsua ere bada han ibiltzea. Eskertuko genuke zubi hori konpontzea".

**Zabor edukiontzia husteko ordutegia aldatu beharko lukete:** "Erdigunean bizitzeak badakigu zer esan nahi duen, baina lo egiteko eskubidea herritar guztiok eduki beharko genukeela iruditzen zait, egun bereziak aparte lagata. Zergatik hustu behar dira edukiontzia gauetz? Kristalen edukiontzia husterakoan, bereziki, sekulako zarata sortzen da, eta ordu txiki horietan loak hartu ezin da egoten gara askotan. Zabor edukiontzia etxepean ditugu, eta haiek botatzen duten usaina jasatea gutxi ez balitz, zarata ere jasan behar izaten dugu. Lan hori egiteko beste ordutegi bat jarri beharko lukete arduradunek".



# Doimak

- CNC fresatzailea behar du
- Fagor kontrola erabiltzen jakitea eta euskaraz jakitea baloratuko dira

Interesatuak bidali zuen curriculumak 11 posta kutxara edota [risasti@doimak.es](mailto:risasti@doimak.es) helbidera

# UDAL ARTXIBOA KLIK BATEAN



**Udal Artxiboko ordenagailuan klik bat egin eta Elgoibar sortu zenetik gaur arteko historian murgiltzeko aukera izango dute aurrerantzean hala nahi duten guztiek. Izan ere, Udalaren enkarguz, artxiboko dokumentu zaharrak digitalizatzen jardun du Jose Valderrey eibartarrak iaztik hona. Joan zen astean aurkeztu zuen bi urteko lanaren uzta.**

**Ainara Argoitia**

**U**dal Artxiboko dokumentu gehienak digitalizatu eta herritarren eskura jarri ditu Elgoibarko Udalak. Urte biko lana izan da (2011-2012ko abuztua). Udaletxeko aktak, hitzarmenak, lur jabeen eta Udalaren arteko akordioak, notario-aktak... era guztietako dokumentuak daude digitalizatutako artean, hasi Erdi Aroan eta XX. mende erdira artekoak [1346-1960 urte bitartekoak]. Jose Valderrey eibartarraren enpresa arduratu da digitalizazioaz, eta helburu zehatz batekin aritu dira. “Digitalizazioak ondare historikoa hobeto gordetzea ahalbidetzen du. Izan ere, ondare horren ordez kopia digitalak kontsultatzeko aukera emanda, dokumentazio

guzti hori eskuz esku erabiltzea saihesten dugu, eta ondorioz, galtzeko edo hondatzeko arriskua txikitu”, adierazi du Jose Valderreyk.

Valderrey berak egin ditu dokumentu horiek guztien argazkiak, Elgoibarko Udal Artxiboan bertan, “dokumentu guzti horiek batetik bestera erabili beharrik ez izateko”. Horretarako, zenit-kopiagintzako edo goitikako kopiagintzarako tresneria erabili du, Iragi Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroak araututakoa jarraituz [Eusko Jaurlaritzaren Agiritegi eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzua da Iragi]. Guztira, 25.542 irudi digital egin ditu, bi orritara. Orrialdetan zenbatuz gero, 48.000 orrialde. Dokumenturik zaharrena

1420. urtekoa da, eta pergamino bat da: Elgoibar sortu zeneko Hiri Gutunaren (1346) kopia da. “Balio handiko dokumentua”, Valderreyren esanetan. Horrez gain, *Libro Colorado* delakoaren garrantzia ere azpimarratu du. Udal Artxiboan zeuden 1534. urtera arteko dokumentu zaharrenak gordetzeko asmoz egindako liburua da, 1727. urtekoa. Pedro Perez de Marigorta eskribaua arduratu zen aintzinako dokumentu zahar guzti haiek Liburu Gorrian transkribatzen. Horrek erakusten du dokumentu historikoak gorde eta zaintzeko nahi hori ez dela gaurko kontua. Gure aurrekoek ere izan zuten kezka hori, eta horri esker iritsi dira dokumentu haie-tako asko gureganaino.



Pello Arrieta, historialaria

## “Digitalizazioarekin izugarri erraztu digute gure lana”

### Nola hartu duzu Udal Artxiboa digitalizatu izana? Zer aukera zabaltzen ditu dokumentu zaharren digitalizazioak?

Poz handia hartu dut. Artxiboa ez baldin badago egituratuta, ez baldin badago pertsona bat artxiboaren arduruan eta ez baldin badauka ordutegi jakin bat, zaila da ikeretzea. Horrela ibili gara orain arte Elgoibarko Udal Artxiboan. Digitalizazioarekin izugarri erraztu digute lana. Ezingo dugu etxetik bertatik egin kontsulta, baina artxiboan bertan mahai batean jarri eta lanerako bitarteko hori izatea handia da. Elgoibarko Udal Artxibategian 1420. urtetik honako dokumentuak daude, eta jakina, horiek ahalik eta gutxien ukitu behar dira, honda ez daitezten. Digitalizazioak abantaila hori ere eskaintzen du. Aurrerantzean dokumentu zaharrak askoz hobeto kontserbatuko dira.

### Aurkezpenean Jose Valderreyk esan zuen Luis Ezenarro eta zure laguntza ezinbestekoa izan dela. Zein izan da zure egitekoa?

Artxibategian dauden dokumentu gehienak aztertuta nituen nik aurrez, eta berak falta zuen testuinguru hori. Artxiboan dagoenaren gaineko argibide batzuk eman dizkiot, eta saiatu naiz bere zalantzak argitzen. Baina lana berea da, eta meritua ere bai. Dokumentuak banan-banan hartu, eta euren tresneria horrekin argazkiak atera eta digitalizatzea lan handia eta nekeza da. Azkeneko hilabeteetan harremana handia izan dugu, sarri egin dugulako topo artxiboan bertan.

### Elkarrizketa hasi aurretik iradoki duzu Elgoibarko Udal Artxiboa ez dela behar bezala zaindu gaur arte.

Elgoibarko artxiboa ez da baldintza onetan egon kontsultatzeko. Badakit zer garaitan bizi garen eta krisiak asko mugatzen duela, baina Udalak jakin behar du artxiboak leku egokiagoan egon behar duela, toki

seguruago batean, eta oso garrantzitsua dela pertsona bat egotea haren arduruan. Artxiboak niretzako *santa sanctorium* bat izan behar du, giltzarekin itxitako leku bat, eta artxibozainak bakarrik izan behar du hara sartzeko aukera. Era berean, dokumentuak hobeto gordeta egon behar dira, eta kontsultarako leku bat izan behar du ikertzaileak, lanerako toki apropos bat. Orain badirudi hori zuzenduko dutela, batzar gelan jarriko dituztelako ordenagailua eta mahaiak, baina bestea konpondu behar da. Artxibo historikoak, hau da liburuak, paper historikoak eta karpetak dauden lekuak, erabat itxita egon behar du.

### Dokumentu historikoak diren neurrian, denak dira balio handikoak, baina zein da zure ustez Udal Artxiboko harribitxia?

Oso dokumentu inportanteak daude. Ez dago Elgoibar sortu zeneko Hiri Gutun originala, esaterako, baina bai 1420an egingandako kopia bat. Burdinolen Forua ere badago. Hau da, burdinolen jabeen eta Udalaren arteko akordioa. Pergaminoak dira biak. Dokumentuak asko dira inportanteak, baina Liburu Gorria edo *Libro Colorado* delakoa aipatuko nuke nik.

### Zergatik da horren garrantzitsua Liburu Gorria?

Euren esku zituzten antzinako dokumentuak liburu horretan transkribatu zituztelako eskribauek. Atera kontuak zenbat informazio dagoen jasota liburu horretan. Liburu Gorri horretan bada 1451. urteko dokumentu bat, *Apeamiento de los terrenos del concejo de Elgoibar* izenburukoa, zeinean 1326an Elgoibar sortu zeneko mendi, lur-sail, soro, bide eta abarren aipamena egiten den. Zer gertatu zen Elgoibar sortu eta ehun urtera? Bada, jabe partikularrek, baserri-jabeek eta abarrek, herri-lurrak, baso eta gainerako lur-sail asko bere egin zituztela, eta orduan, Udalak erabaki zuela no-

la-halako katastro bat egin behar zela jabetza pribatuko eta publikoko sailak bereizteko. Leku-izen eta baserri-izen ugari agertzen dira, eta baita errege bide, auzo-bide edota orduko ahaltsuen izenak ere. Horregatik, Toponomia lana egin zutenei ere gomendatu nien irakurtzeko.

Badago beste dokumentu bat oso garrantzitsua, inguru hau aipatzen duena. Hemen ondoko dorretxearen gainekoa da [Kultur Etxea], Erdi Aroan Arriola dorretxea izan zenaren eta gero Alzolatarren Dorretxea izatera pasa zenaren gainekoa. Hasieran, harresitik kanpo gelditzen zen dorretxe hori, eta, orduan, jabeek eta Udalak akordio bat egin zuten harresia mugitzeko. Zergatik? Bada, garai hartan harresi barruan bizi zirenek bakarrik izaten zituztelako eskumena alkate edo zinegotzi izateko, eta gainera, eskubide gehiago ere izaten zituztelako. Eta, jakina, sartu nahi.

### Historialaria zara zu, baina herriar xume batek zer etekin atera diezaiokie artxiboari?

Paleografiaren ezagutzarik ez duenari, hau da antzinako idazkera eta laburdurak ezagutzen ez dituenari, zaila egingo zaio informazioa interpretatzea, bereziki XVIII. mendera artekoa.

### Dokumentuak digitalizatu dituzte. Zein izan beharko litzateke hurrengo pausoa?

Orain, artxiboan inpresora bat jartzeko eskatuko nioke Udalari, ikertzaileak ezin duela lan guztia han egin. Ikertzaileak etxera eramane behar du dokumentua, patxadaz aztertu eta dokumentu horri ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko. Nolanahi ere, esan dugun bezala, liburuarekin atzeratu aurrera ibili beharrean, aurrerantzean artxibo guztia eskura izango dugu udaletxean, eta hori historialari eta ikertzaile baten ikuspuntutik begiratuta, izugarria da.

### Zerbait nabarmendu nahiko zenuke?

Erakundeei eskerrak eman. Besterik ez.

# FELIX ARKARAZO

Aktorea

**‘Goenkale’ telesailak 18 urte bete ditu, eta ospatzeko Glu Glu Produkzioak taldekoek telebista formatotik taula gainera eraman dute. Intriga eta maitasun istorioak umorez jantzi dituzte zuzeneko antzezlanerako. Euskal Telebistan marka guztiak hautsi dituen telesaila Elgoibarko Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da, gaur iluntzean.**



## “Jendeak ezin hobeto pasatuko duen itxaropena daukagu”

**Elgoibarren estreinatuko duzue *Goenkale* antzezlan gaur. Nolako harreka espero duzue?**

Lan gogorra egin dugu entseguetan, eta jendeak ondo erantzutea espero dugu. Elgoibarren ibili gara entsegatzen, eta Elgoibarko herriari esker ona erakusteko obra herrian bertan estreinatzea erabaki genuen. Ikusleek barre egiteko aukera izango dute, eta jendeak ezin hobeto pasatuko duen itxaropena daukagu.

**Nola moldatu duzue *Goenkale* telebista formatotik antzerkira?**

Formato aldaketa hori gauzatzeko dilema moduko bat izan dugu: aurtengoa *Goenkale*ren hemeretzigarren denboraldia da, eta urte hauetan ehunka aktore pasatu dira telesailetik, neu tartean. Aukeraketa egitea ez da erraza. Azkenean sei pertsonaia hartzea erabaki zuten, hiru gaur egungoak eta beste hiru lehengoak, eta pertsonaia horien bueltan antolatuko dute istorioa. Trama itxia da, hasiera, korapiloa eta amaiera batekin. Intriga, amodioa eta komedia uztartzen dira, eta ikuslearentzako antzezlan eroso eta interesgarria izango da.

**Sei pertsonailetako bat zeurea izateak zer sentiarazi dizu?**

Eskertzekoa da. Istorioak intriga puntua edukitzeak ahalbidetu du nire pertsonaia aukeratzea, intriga kasuetan ertzaina ohikoa izaten delako. Dena dela, beste norbait aukeratzea ere bazegoen, beraz, esker ona azaldu behar dut.

**Hemetzigarren denboraldia du aurten *Goenkale* telesailak. Zein da arrakasta horren arrazoia?**

Batetik, euskararen tratamenduak jendearengan eragin zuzena daukala esango nuke. Euskara era malguan erabiltzen da, eta euskalkieri ere egiten zaie tartea. Bestetik, istorioak egunerokotasunari loturikoak izate

ten dira, eta horrek era guztietako jendea erakarri du. Telebista kate berri asko sortu dira azken urteotan, eta pastela kate gehiagoren artean banatu behar da. *Goenkale* horri eusten jakin du, eta emaitza onekin gainera. Telebistan ez du inork ezer oparitzen, eta ez balu funtzionatu, kendu egingo lukete.

**Non sentitzen zara gusturago, telebistako platoon ala oholtza gainean?**

Biek eskaintzen dute gozatzeko aukera, bakoitzak bere moduan. Antzerki lanak beste dinamika bat dauka: entseguak egin behar dira, antzezlan zuzenean egiten da, ikusleak han daude, ozen hitz egin behar da denek ondo entzuteko... Telebistan, aldiz, kamarak daude, gauzak gaizki irtetzen badira errepikatu egin daitezke, ahotsa moldatu egin daitezke... Niri bi formatoak iruditzen zaizkit oso interesgarriak.

**Zure aurpegia bezain ezaguna da ahotsa telebistan. Anekdotarik?**

Bai, eta horietako bat ez dut sekula ahaztuko. Iger itsasmuturretik Creusera nindoan mendiz mendi, Pirinioak Gipuzkoatik Gironara zeharkatuz. Mendi bazter batean hartu nuen ostatu gau batean. Berandu iritsi nintzen eta nekatuta. Tabernan zerbait eskatu nuen, eta bat-batean, ostatuko goiko logelatik gazte bat agertu zen korrika, Vegeta entzun zuela esanez. Baietz, ni nintzela esan nion, eta sekulako piro-poak esan zizkidan. Jendeak belarri fina duela eta telebista asko ikusten duela konturatu nintzen!

**BEZaren igoera dela-eta, nola ikusten duzu antzerkiaren egoera?**

Zaila. Kriaren eraginez alor guztietan izan dira murrizketak, baina BEZaren igoerak kulturari min handia egin dio, bereziki txarteldegietatik bizi diren ikuskizunei. Suspertu beharrean, matrailekoa eman diote kulturari. Urteetan lur jota egongo gara.

# Elgoibarko lagun talde baten lana saritu dute Bidaiari Dubi-Dubi lehiaketan

Bilboko Udalak sustatutako lehiaketa da, bidaiei buruzkoa

**E**lgoibarko lagun talde batek aurkeztutako lana saritu dute Bidaiari Dubi-Dubi bideo lehiaketan. Bilboko Udalak sortutako lehiaketa da, eta bidaiei buruzko bideo umoretsuak zabaltzeko sortu zuten. Elgoibartarrek hirugarren saria eskuratu dute (350 euro eta diploma).

Udan Eslovenia, Austria eta Italia-ra egindako bidaietan grabatu dute bideoa, eta bisitatu dituzten hainbat leku esanguratsutan dantzan ageri dira neskak. ([www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean daukazue bideoa). Begoñako Udaltzarian egingo dute sari banaketa, urriaren 25ean, 19:30ean. Sari banaketan bideo irabazleak ikusteko aukera izango da.



## IMHK 30+10 mintegia egingo du eguaztenean

IMHK 30+10 mintegia antolatu du, Jaurilaritza, Gipuzkoako Aldundia, Udala eta Ahize-AEKekin elkarlanean. Europako Batasuneko enpresa-praktika eleanitzen enpresen nazioarteratze prozesuetan hizkuntzak daukan garrantziaren eta Management eta hizkuntza plangintzaren gaineko hitzaldiak eta India sozio ekonomiko, linguistiko eta kulturalaren gaineko mahaingura antolatu dituzte, besteak beste. Parte hartzeko izena eman behar da (943 744 132).

## Gaztetxearen Eguna ospatuko dute Mendaron bihar, zapatua

Gaztetxearen Eguna antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak biharko. Pasta lehiaketarekin hasiko dute eguna. 12:00etan hasiko da berez lehiaketa, eta parte-hartzaileek 14:00etarako prest izan beharko dituzte euren platerak. Orain arte oso koadrila gutxik eman dute izena, eta antolatzaileek parte hartzera deitu dituzte herritarrak. "Inork parte hartu ezean arriskua dago horrelako egunak galtzeko. Gazte Asanbladaren bileretan ere oso jende gutxik parte

hartzten du, eta penagarria litzateke herriko gazteen axolagabekeriagatik Gaztetxea itxi behar izatea", ohartarazi dute horren harira.

Lehiaketa ostean, 14:30ak aldera, elkarrekin bazkalduko dute denek. Bertso bazkaria izango da, Fredi Paia eta Jone Uria bertsolariekin. Bazkalostean, berriz, poteoan irtengo dira, Motxila Band taldearekin, eta gauerako, erromeria antolatu dute Hona taldearekin. Gaztetxean bertan izango da erromeria, 23:00etatik aurrera.

## Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan

Domekan, hilaren 21ean, kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian. 12:30ean hasiko da, eta hauxe izango da egitaraua: *Danza Hungara* (J.Brahms), *Jesus Crist Superstar* (Lloyd Webber), *Sonrisas y Lagrimas* filmeko Do-re-mi pieza (R.Rodgers), *The Beatles in Concert* (Lennon-Mc Cartney) eta *Bella Italia* (Hans Kolditz).

## Abstract Artimusek kontzertua eskainiko du gaur

Sinuosek antolatuta, Abstract Artimusek kontzertua emango du gaur, hilaren 19an, Elgoibarren. Manhattanen bizi da hegoalde sakoneko musikari hau, eta aitaren pausoak jarraituz, Estatu Batuak, Kanada eta Europan zehar egin ditu birak, bakarlari gisa nahiz taldearekin. Rock and roll klasikoaren eta blues estiloaren inguruan mugitzen den taldea da. Antolatzaileek aurreratu dute bakarrik etorriko dela hona, bandarik gabe alegia. Sotoan izango da kontzertua, 23:00etan. Sarrerak hiru euroan jarriko dituzte salgai.

## Bideo-foruma antolatu du Haizeak hilaren 26rako

Haizea Emakume Taldeak bideo-foruma eta kafe tertulia antolatu ditu gaur zortzirako. *Donde reside el amor* filma ikusi eta aztertuko dute, kafea hartuaz. Elgoibarko Kultur Etxean izango da, 21:30ean.

## 'Jon Beldurgabea' haurrentzako antzerkia

Txalo produkzioak taldeak *Jon Beldurgarbera* antzezlanaren taularatuko du urriaren 28an, Herriko Antzokian. Grimm anaiek idatzitako klasikoaren egokitzen bat da, Begoña Bilbaok zuzendu eta Aitor Fernandino eta Alfonso Diezek antzeztutakoa. Euskaraz izango da saioa. Haurrentzako sarrerek 3 euro balio dute eta nagusientzakoek 4,5 euro. .

# DEBA IBAIA,

## BEGIBISTAKOA BAINO GEHIAGO

**Deba ibaia garbitzeko ekitaldia antolatu dute biharko Udalak eta Debegesak, Morkaiko eta URA elkartearen laguntzarekin. 11:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta nahi duen orok hartu dezake parte. Jarduera horren harira, hainbat hitzaldi eskaini dituzte aste honetan, eta hizlarien artean Inma Mugertza geologoa eta Antton Alberdi biologoa izan dira.**

**Ainhoa Andonegi**

**L**eintz-Gatzagan jaio eta Deban itsasoratzen da Deba ibaia. 58 kilometroko luzera du, eta hori kontuan hartuta, Euskal Herriko bosgarrena da. Erdi-erditik zeharkatzen du Elgoibar, eta zortzi kilometro hartzen ditu herriko lurretan. Datu hotzak dira horiek, aski ezagunak. Baina, nolakoa da Deba ibaia geologo edo biologo baten begiz ikusita? Antton Alberdiren iritziz, berez izan beharko lukeenetik oso desberdina da Deba ibaia: “Kanalizatuta dago ibilbidearen gehiengoan, eta, gainera, kanal horren inguruan azpiegitura asko eraiki dituzte”. Etxeak, errepidea, trenbidea edota autopista eraiki dituzte Deba ibaiaren inguruan, eta horrek guztiak ibaian gertatzen diren fenomenoetan eragina duela azaldu du. Mugertzak eta Alberdik argi argi daukate: “Ibaia ikusten duguna baino askoz gehiago da”.

### Algak ugari

Ibaiari apur bat erreparatuta, berehala ohartuko gara azkenaldian algak ugari egin direla. Ibaia eutrofizatuta dagoelako gertatzen da hori; hau da, beharrezkoa baino nutriente gehiago dituelako. Begi bistara eman dezake algak eta uretako landareak ugartzea osasuntsua dela, baina kontrako efektua ere egin dezake. Alberdik azaldu du horren arrazoa: “Landareek egunez CO<sub>2</sub> arnasten dute, baina gaeuz, oxigenoa. Gerta daiteke oxigeno gehiegi xurgatzea, eta ondorioz, arrainak ur horietan ezin bizi izatea”.

### Ibaiaren kalitatea

2003ko datuen arabera, Gipuzkoako ibairik kutsatuena zen urte hartan Deba ibaia. Hori dela-eta, Apraizko araztegia egiteko lanak hasi zituzten 2004an, eta 2007an ireki zuten. Horri esker, uraren kalitatea hobetu egin da, baina oraindik orain, Gipuzkoako kutsatuenetarikoa da Deba ibaia. Dena dela, uraren kalitatea baino gehiago hartu behar da kontuan ibaiaren kalitatea neurtzerakoan. Ibaiak dituen oztopoek, esate baterako, kalitateari kalte egiten diotela nabarmendu du Mugertzak: “Espainiako ibaien artean Deba da oztopo gehien dituenena”. 58 kilometroko ibilbidean 233 oztopo daude; kilometroko, lau oztopo. Oztopo



*Inma Mugertza eta Antton Alberdi Deba ibaian.*

horiek arraintzako traba handia dira, eta, ondorioz, uretako populazioa handitzeko zailtasunak daude. Alberdik baieztapen hori berretsi du, Mendarotik Maltzagarainoko bidean bost oztopo kontatu dituela esanez. Zentral hidroelektriko eta presak dira oztopo horietako gehienak, eta gaur egun horietako asko ez dira erabiltzen, eta martxan daudenen errendimendua oso bajua da. Jakin badakite oztopo horiek kentzea zaila dela, baina haien ustez, ahalegina egin beharko litzateke, Deba ibaiaren kalitatea berreskuratu nahi bada behintzat.

Kalitatea hobetzeko lanen barruan, herritarrek hezi eta kontzientzia behar direla nabarmendu dute, kalte nabarmenena gizakiak eragiten diotako ibaiari. Mugertzak esan duenez, medikamentu asko agertzen dira ibaian, jendeak komuneko zuloetik botatzen dituelako. Farmako horien eraginez arrain batzuen sexua aldatu egin dela gaineratu du Alberdik. Horrek sexuen arteko desorekak eragin ditu Euskal Herriko hainbat ibaitan, eta ondorioz erreproduktzio gaitasuna gutxitu egin da. Horrez gain, zabor asko ikusten da zuhaitzetatik zintzilik: “Girmaldak dirudite”, Mugertzaren hitzetan. Tanpoi, konpresa edota preserbatiboak izaten dira gehienak, jendeak botatukoak. Lan handia egin behar da herritarren kontzientzia eragiteko, hori delako natura eta gu geu zaintzeko garrantzitsua.





*Gorriz, hamar urtean behin ur azpian gelditzeko probabilitatea duen eremua; horiz, ehun urtean behin; eta, urdinez, 500 urtean behin. Hirigunearen zati handi bat bostehun urteko itzulketa-epealdiko eremuaren barruan dago. Jatorria: Eusko Jaurlaritza ([www.geo.euskadi.net](http://www.geo.euskadi.net))*


## Uholde arriskua

1988an gertatu ziren azken uholdeak Elgoibarren. Ordutik lan handia egin dute Deba ibaian, eta jende askok uste du lan horien ondorioz herria uholdeetatik salbu dagoela, baina uste okerra da hori. Uholde arriskuen mapak erakusten duen bezala, ibaiaren eremuan eraikita dago herriaren zati handi bat, uholdeen zonaldean, eta ingurune honetan uholdeak gertatzea munduko gauzarik normalena da. “Ez bada uholderik egon euri guxtiago egin duelako da, baina orduan beste euri egingo balu, ondorioak berberak edo okerragoak izateko arriskua legoke”, esan du Mugertzak. Kanalizazioaren ondorioz, urak abiadura handiagoa hartzen du, ur kantitate berbera leku estuagoan sartzen delako. Modu naturalean baino arrisku handiagoa dauka kanalizatutako ibaiak. Orografiak berak kanalizatuta dauka Deba ibaia, eta ibaiaren arnagune guztiak edifikatuta daude, beraz argi eduki behar dugu noizbait uholdeak gertatuko direla. Kanalizazioak ibaien funtzionamenduari kalte ikaragarria egiten diola nabarmendu dute, eta haien iritziz, kanalizazioaren alternatibak existitzen dira, ingurumenari zein herriari fabore handiagoa egiten diotenak, baina horretarako ibaiari bereak diren lurak itzuli behar zaizkio: “Kanalizazioaren alternatiba ibaiari tartean-tartean arnaguneak itzultzea litzateke”. Parke urbanoak egin ahal izango lirateke, Debako futbol-zelaiaren inguruan egin dutenaren antzekoa, denboraren %99an herriaren zerbitzura egongo liratekeenak eta %1ean uholde-arriskua txikitzeko funtzioa beteko luketenak, esate baterako.

## Lurpeko uren garrantzia

Ibai guztien oinarria lurpeko urak dira, eta garrantzia handia dute. Inma Mugertzak urte asko daramatza lurpeko urak ikertzen, eta bere ustez, lurpean altxor bat dugu. Lurrean, planeta urdinean, ura barra-barra dago, baina, %2,5a soilik da ur geza, eta ia guztia izoztuta dago, kasko polarretan edo glaziarretan. Izoztuta ez dagoen ur geza horren %96 inguru gure oinen azpian dago, eta horri deitzen zaio lurpeko ura. Herritarrentzako ezezagunak dira, eta Mugertzaren iritziz, ez zaio behar adinako garrantziarik ematen. Europan, ehun mila biztanle baino gehiago dituzten hirietako %60k lurpeko urak erabiltzen dituzte ur-hornikuntzarako. Elgoibarko ur-hornikuntzaren oinarria ere lurpeko urak dira, Izarraitzen lurperatu eta Aranerrek azaleratzen direnak, alegia. Prezipitazioetatik sortzen dira lurpeko urak, eta gainazalak xurgatzen ez duena edo lurruntzen ez dena, lurpera joaten da grabitatearen indarrez. Galdera bat bota du: “Udako hila-bete lehorretan zergatik ez da lehortzen Deba ibaia?”. Lurpeko urak dira horren arrazoa, eta lurpeko urak mantentzen du ibaiaren ur emaria.

Historikoki ohikoa izan da bizimodua ibaien inguruan antolatzea, lur emankorenak horiek direlako. Oso argi eduki behar da, ordea, lurpeko uren ondorioz, lusaile horiek noizbait urak hartuko dituela. Adibide bat jarri du: “Euri asko egiten duenean garaje asko urez betetzen dira, eta jendeak uste du ibaia irten egin dela, baina lurpeko uren ondorioa da”.



## Deba ibaiko fauna

Ohikoa da ibai inguruetan fauna oparoa aurkitzea, animaliek ura ezinbestekoa dutelako bizitzeko. Deba ibaiaren inguruan ere badira animaliak, baina egon beharko luketenak baino gutxiago, besteak beste, Deba ibaia eta mendia ez daudelako komunikatuta Elgoibarren, eta hori ezinbestekoa da animaliak ibaira gerturatzeko. Leku bakarra dago baldintza hori betetzen duena: Lerungo meandrea. Inguru honetan basoa eta ibaia elkarren ondoan daude, eta animalia asko batzen dira han, dela ura edateko edota freskatzeko. Alberdik argazkilaritzarako zaletasuna eta pazientzia ere badu, eta sarri ibiltzen da ibai bazterretan erretratuak ateratzen. Orri honetan batu ditugu Deba ibaian gehien ikusten diren animaliak.



**BASAHATEA,**  
*Anas platyrhynchos*

Deba ibaiko hegazirik arruntena da, eta denetariko elikagaiak jaten ditu: landareak, intsektuak, barraskiloak eta baita jendeak botatako janaria ere.



**BUZTANIKARA ZURIA,**  
*Motacilla alba*

Ibai eta erreketako txoririk arruntenetarikoak da, eta ibaie-tan bizi diren intsektuen larbez eta intsektu hegalariez elikatzen da.



**BUZTANIKARA HORIA,**  
*Motacilla cinerea*

Ez da buztanikara zuria bezain arrunta, baina oso bizi-modu antzekoa du.



**CONVOLVULI ESFINGEA,**  
*Agrus convolvuli*

Euskal Herriko sitsik handienetarikoak. Argazkian ikus daitekeen beldarra (sitsaren fase larbarioa) ere gure lurraldeko handienetariko bat da. 10 cm-ra iritsi baitaiteke.



**SUGE GORBATADUNA,**  
*Natrix natrix*

Ur-inguruneetara ederki moldaturiko sugea da, eta bertako intsektu, arrain eta igelez elikatzen da, batez ere. Igerilari trebea da.



**SYMPETRUM FONSCOLOMBII**  
**BURRUNTZIA**

Burruntzien larbak ibai eta erreketako faunaren zati garrantzitsua dira, hainbat intsekturen eta anfibioaren arrautzez eta larbez elikatzen baitira.



**TXIRRI ARRUNTA,**  
*Calidris alpina*

Paduretako (itsasoak eta ibaiak bat egiten duten lekua) hegazti-espezia da, eta moko fina lokatzetan sartuta bertako zizareez elikatzen da, batez ere.



**UBARROI HANDIA,**  
*Phalacrocorax carbo*

Deba ibaiko hegazti handirik arruntena da, eta ur sakonetan buzeatzen du arrain bila. Ohikoa da hegoak zabalik arroka baten gainean aurkitzea, eguzkitan lumak lehortzen.

# Markel Bergarak 2016ra arte luzatu du kontratua Realarekin

2007an egin zuen debuta Bergarak Realean

**M**arkel Bergara futbolari elgoibartarrak hiru denboralditarako luzatu du Realarekin zeukan kontratua, eta, beraz, 2016ko ekainaren 30era arte Realeko jokalaria izango da. Kontratua luzatzearekin “pozik” agertu da erdilari elgoibartarra, eta futbolari ibilbidea Realean amaitzea “amets bat” izango litzatekeela azaldu du. Markel Bergarak 2007an egin zuen debuta Realean, Las Palmas taldearen kontra.



## Euskadiko Txapelketa irabazteko helburuarekin hasiko du liga domekan Tecnifuelle taldeak



Tecnifuelle senior nesken taldeak domekan hasiko du liga. Sanloko ardura-dunek esandakoaren arabera, Euskadiko Txapelketa bigarren urtez irabazteko asmoarekin hasiko dute denboraldia. Domekan jokatuko dute, beraz, estreina-partida Ereintza taldearen kontra. Kiroldegian izango da norgehiagoka, 12:30etik aurrera.

## Domekan jokatuko dituzte Lau t'erdiko txapelketako finalak

10 Bai taldeak antolatutako Lau t'erdiko txapelketa azken txanpara iritsi da. Aste honetan jokatuko dituzte finalurrekoak, eta domekan izango dira finalak. Lehenengo mailan Arribik Porturen kontra jokatuko du, eta bigarren mailako partida Gerrik eta Bastidak jokatuko dute. 11:00etan hasiko dira jokoan. Euria egiten badu finalak atzeratu egingo dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

## Zapatu arratsaldetan ere zabalduko dute Mintxetako muskulazio gela

Kirol Patronatuak zabaldu egingo du Mintxetako muskulazio gelaren ordutegia, eta aurrerantzean, zapatu arratsaldetan ere zabalik egongo da. Orain arte, asteburuetan goizez bakarrik zabalitzen zuten. Hauxe izango da ordutegi berria: astelehenetik barixakura: 10:00-21:30. Zapatuetan: 10:00-13:00 / 16:00- 19:00. Igande eta jai egunetan: 10:00-13:00.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Gernika 0 – Haundi 1 (3. maila)  
 Elgoibar 1 – Mutrikuarrak 2 (Erreg.)  
 Elgoibar 3 – Aloña Mendi 0 (Jub.)  
 Elgoibar 4 – Aurrera 1 (Kad.)  
 Eibartarrak 3 – Elgoibar 4 (Kad.)  
 Ordizia 2 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)  
 Elgoibar 1 – Allerru 0 (Neskak)

### ARETO FUTBOLA

Siguenza 0 – Concepto Egile Elg. 9 (1. maila)

### ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 25 – Beti Onak 24 (Sen. mut.)  
 Sanlo Elg. 28 – Saieko 16 (Sen. mut.)  
 Beristain Elg. 17 – Usurbil 26 (Jub. mut.)  
 Ikus Elg. 27 – Zalla 15 (Kad. nesk.)  
 Zuazo 23 – Lauko Elg. 19 (Jub. nesk.)  
 Zuazo 28 – Astigarraga Elg. 19 (Kad. nesk.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20

17:00 Haundi – Zalla (3. maila)  
 12:00 Elgoibar – Soraluze (Kad.)  
 10:00 Elgoibar – Beasain (Inf. Txiki)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 20

11:15 Txarriduna Elg. – Ereintza (Kad. mut.)  
 12:45 Murgil Elg. – Aiala (Inf. nesk.)  
 16:00 Astigarraga Elg. – Zarautz (Kad. nesk.)  
 17:30 Lauko Elg. – Zarautz (Jub. nesk.)

Domeka, 21

9:30 Cometel Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)  
 10:45 Pneumax Elg. – Urnietako (Kad. mut.)  
 12:30 Tecnifuelle Elg. – Ereintza (Sen. nesk.)

### ESKU PILOTA

Barixakua, 19

21:30 Lagunak – Eple (2. mailako nag.)

## Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Kirol Patronatuak Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa antolatu du. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, azaroaren 7a baino lehen. Patronatuko bazkideek 13 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 16 euro. Autobusa goizeko 8:30ean irtengo da, King-Kong-etik.

**LANA**

**ESKAERA**

• LH eta DBHko klaseak ematen ditut. Ikasgai guztiak.

☎ 696 295 098

• Emakumea edozein lan egiteko prest. Adinekoak zaintzen esperientzia dauka.

☎ 650 152 866

• Gizonezkoa lanerako prest. Biltegian, garraiolari, baserrian...

☎ 649 659 041 (Diego)

**ESKAITZA**

• Sukaldari laguntzailea behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko.

☎ 687 051 789

**ETXEBIZITZAK**

• Apartamentu berritua alokatzen dut Altzolán.

☎ 656 750 160

• Babes ofizialeko pisua salgai, Arregitorren kalean. 57m<sup>2</sup>. Logela bat, sukaldaria, egongela, bainugela, ganbara. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest.

☎ 687 281 719

• Etxea alokairuan, Errosario kalean. Hiru logela, egongela eta berogailu zentrala.

☎ 639 353 331 / 943 742 034

**GARAJEAK**

• Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Hilean 50 euro.

☎ 633 633 990

• Garaje itxia alokairuan, Urazandín, Anayak eraikinean. Bi solairu ditu. Autoa gordetzeko edo biltegitzat erabiltzeko aproposa.

☎ 943 742 306

**BESTELAKOAK**

• Bikientzat ume-aulkia erosiko nuke, egoera onean balego.

☎ 696 295 098

• La Unión Caza y Pesca elkarteko bazkide izateko akzioa salgai.

☎ 605 775 325

• Umearen kotxe-aulkia salgai. Jane Belmoral markakoa. Osagarri guztiakin: hamaka, bainera... Sehaska opari.

☎ 646 095 256



I. URTEURRENA

## M<sup>a</sup> CARMEN PEÑALBA ARRIETA

2011ko urriaren 17an hil zen.

*“Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan”*





I. URTEURRENA

## M<sup>a</sup> ANTONIA PORTILLA PERELLO

2011ko urriaren 17an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 20, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





## ANGEL GARATE ALBIZU

eta

## ARRATE GARATE ZENDOIA

*Lau eta hamar urte ez dira ezer, baina zuek gabe luze joan dira. Beti zaudete gure bihotzetan. Ama, eta etxeko guztiak.*



2008ko azaroaren 12an hil zen.  
IV. URTEURRENA

2002ko urriaren 27an hil zen  
X. URTEURRENA

*Meza urriaren 20an, zapatuan, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.*



• Zorionak, **Nora**, atzo 8 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Unax**, urriaren 15ean 5 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen! Muxu asko, gurasoen partez.



• Zorionak, **Jenni**, hilaren 15ean 21 urte handi bete zenituelako. Javieren eta Aliren partez.



• Zorionak, **Nala**, datoren astelehenean 2 urtetxo beteko dituzulako! Muxu pila bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Lidia**, hilaren 24an zure eguna delako. Koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Danel**, astelehenean 7 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, besarkada bat.



• Azkenean 5 urte! Zorionak! Aita, ama eta Aselen partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Trini**, atzo 88 urte egin zenituelako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Ainhitze**, igandean 12 urte handi beteko dituzulako. Muxu handi-handi bat, etxekoen partez.




• Zorionak, **txapeldun** 10 urte. Hori bai zenbaki borobila! Patxo bat, etxeko denon partez.



• Zorionak, **bikotel** Primeran pasa genuen zuen ezkontza egunean. Muxu handi bat, Urazandiko lagun partez.



• Zorionak, **Markel eta aittitta**, igandean zuen urtebetetzea delako. Ondo pasa eta muxu bana, etxekoen partez.



• Zorionak, **Ekaitz**, Luke eta Izaren partez, muxuak.



• Zorionak, **Sheila eta Raul**, zuen ezkontza egunean. Primeran pasatuko dugu. Muxu bana, familiakoen partez.



• Zuek zarete gure poza!. Zorionak, **Edith eta Dunal**.



• Zorionak, **Goiuri eta Xenki**, familiakoen, eta batez ere, Markel, Oinatz, Oxel, Aratz, Aimar eta Peruren partez.

• Zorionak, **Eduardo**, Atzo oso gustura ospatu genuelako. Amaren partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU:** Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €. **ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €. Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



**Urriaren 25ean  
Ludoteka eta Gaztelekua itxita egongo dira**



## 19 barixakua

### Antzerkia

20:30 'Goenkale'

ETB1eko telesail ezaguna taularatuko du Glu-Glu produkzioak. Herriko Antzokian.

## 21 domeka

### Kirola

11:00 Lau t'erdiko finalak

10Bai taldeak antolatutako txapelketako finalak jokatuko dituzte, Kalegoen plazan.

### Musika

12:30 Udal Musika Bandaren

kontzertua

Herriko Antzokian.

## 24 eguztina

### Mintegia

8:45 '30+10'

Hizkuntza kudeaketari buruzko jardunaldia egingo dute IMHn.

### Erakusketa

18:30 Egur arte tailerra

Ikasleek eginiko lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxeko sotoan, azaroaren 4ra arte.

## 26 barixakua

### Erakusketa

18:30 'XXI. mendeko

pasiegoak'

lñaki Izquierdo argazkilararen lanak jarriko ditu ikusgai Ongarri argazki elkarteak. Kultur Etxeko erakusketa gelan, azaroaren 11ra arte.

### Zine forum

21:30 Kafea eta filma

Haizeak antolatuta, kafea pastekin eta pelikula emanaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## ZINEA

### 'El irlandés'

20, zapatua: 19:00/22:15

21, domeka: 19:00

22, astelehena: 21:30



### 'Piratas'

21, domeka: 16:30



### 'Prometheus'

25, eguztina: 19:00/22:15

26, barixakua: 22:15



### OKINDEGIA

21domeka: IBARRENEA

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

19 Barrenetxea  
20 Ibañez  
Goizez: Yudego  
21 Ibañez  
22 Garitaonandia  
23 Etxeberria  
24 Fernandez  
25 Ibañez  
26 Zabaleta

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea  
Yudego  
Yudego  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Barrenetxea  
Barrenetxea

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
Tel: 943 751 384

**URRIAREN 17tik  
AZAROAREN 1a ARTE  
MERTATU PLAZAN!!!**

**EGIN ITZAZUE  
ZUEN ENKARGUAK  
DOMU SANTU  
EGUNERAKO**

- Lore apainketak
- Paisajismoa
- Diseinu mantentze lanak lorategietan, bulegoetan...

**PAGOa**  
LORADENDA & LORAZAINTZA

**Tel.: 943 831 733**  
(Enkarguak telefonoz ere hartzen ditugu)

**www.pagoaloradenda.com**

# EUSKADI AURRERA



# BOZKATU



urkullu.eu

eaj  
pnv





Soluzioak  
zure esku

BOZKATU  
**ehbildu**